

# EUSKALTZAINBURU JAUNAREN SARRERAZKO HITZAK

Fr. Luis VILLASANTE, OFM

Karlos Garaikoetxea, Lehendakari Jaun Agurgarria  
Euskal Diputazioetako Ordezkariek  
Dunixi Abaitua, Gernikako alkate jauna  
Ramon Labaien eta Pedro Etxenike, Kultur eta Hezkuntzako Kontseilari  
Jaunak  
Hainbeste tokitatik etorritako jaun euskalari argitsuak  
Euskaltzaindiko jaunak  
Jaun-Andreak:

Egun on, eta ongi etorri amultsua, guztiz ere urrunetik etorri zareten jaun eta andreoi!

Jardunaldi hauek antolatzean zer asmo edo burubide izan ote du Euskaltzaindiak? Guztien gaineratik eta lehenik, zor baten aitortzea, horra. Euskaltzaindiak ongi daki gure mintzairari buruzko lanek asko eta asko zor diotela kanpoko euskal langileei. Zor hori aitortu, kanpoko jaun horiei gure esker ona agertu, haien eta gure artean lokarriak sendotu, euskal ikerketak bultzatu, horra, labur esanik, zein den Jardunaldi hauen xede eta helburu nagusia.

Iraganari begiratzen badiogu, euskaldunek kanpotarrendandik hartu duguna nik hemen esan nezakeen baino askoz gehiago da, inondik ere.

Euskalduna, bere hizkuntzari buruzko lanetan nagi xamarra zelarik, kanpotarren akuilua behar izan du. Eta zorionean laguntza hori ez du eskas izan.

Adibidez, lehen hiztegia kanpotar batek egin zigun: Landucci italiar jaunak.

Eta Lapurdiko literaturaren berbiztea XVII. mendean, Et. Materre, sortzez euskaldun ez zen fraide bati, zor zaio.

XVII. mende horretan bertan hor dago Silvain Pouvreau, euskal idazle eta hiztegigilea. Hau ere jaiotzaz ez zen euskaldun, atzerritar baizik.

Beste zenbaitetan, jaiotzaz euskaldun izanagatik, etorkiz edo jatorriz kanpotar izan dira gure langiletarik ez guti. Kasu horiek ez dira bat ere bakanak euskal literaturaren kondairan. Esate baterako, Mogeldarrak etorkiz ez ziren euskaldun, Aragoi aldekoak baizik. Gratien Adema olerkariak ere kanpoan zituen sustraiak. Gerhard Baehr alemanen semea zen, baina Legazpi inguruan jaioa eta hemen bere haurtzaroan euskaraz ikasitakoa. Eta abar.

Wilhelm Humboldt jauna XVIII. mende hondarrean gure herrira dator. Haren idazkiek euskararen berriak zabalduko dituzte European zehar. Geroztik euskararen zaletasuna eta arrangura jakintsu askorengan piztuko da.

Euskal gauzetan lan egin duten kanpotarren izenekin lerrokada luzea osa daiteke. Hervás Panduro, Fita, Cejador, Menéndez Pidal, Francisque-Michel, Lécluse, Luis Luciano Bonaparte, Van Eys, Schuchardt, Linschmann, Dodgson, Stempf, Vinson, Hérelle, Uhlenbeck, Lafon, Bouda, eta hainbeste eta hainbeste.

Euskal estudioek, eta baita euskal literaturak berak ere, zer eta zenbat zor dieten jaun hauei, ondo daki gure gauzen kondaira agurtu duen edozeinek.

Jaun horiek aspaldi —edo ez hain aspaldi— hilak ditugu, baina horien ondoan eta horien ildo beretik beste jaun ikerlari argi batzuk etorri zaizkigu. Denoi, lehengo eta oraikoei, esker ona agertu beharrean gara. Gure herrian gaur euskal ikerketei buruz agertzen diren aldizkariak —FLV, BAP, *Euskera* etab.— ikusi besterik ez dago, beroietan kanpotarrek zer tokia eta pisua duten ohartzeko.

Azkue jaunak, Euskaltzaindiaren lehen Zuzendariak, goraki aitortzen zuen euskaldunok kanpotarrekin dugun zor hau.

Bere *Morfología Vasca*-n, Bonaparte Printzeari buruz mintzo delarik, hitzetik hortzera ateraldi sarkor hau jaulkitzen zaio: «¡Qué poco hemos hecho los vascos para mostrar nuestra gratitud al egregio Príncipe!»<sup>1</sup>.

Eta bere Hiztegi handiaren hitzaurrean oraino beste aitormen salatari hau utzi digu: «Yo no sé si el que estas líneas traza habría hecho otra cosa que versos a imitación de su padre, a no haberle aficionado a estos estudios, bien que mediatamente, nuestro gran Bonaparte»<sup>2</sup>.

Horra nola Azkue berak aitortzen digun kanpotar bati zor diola euskal azterketetarako erñe zitzaion gogo eta zaletasuna.

Eta hiztegiaren toki berean orrialde osoa betetzen du euskarak kanpotarrei zor diena kontatuz. Hitz hauek gehiegi ez luzatzearren ez dut orri hori honera aldatuko.

1. *Morfología Vasca*. Índice de Autoridades, 811. orrialdean.

2. *Diccionario Vasco Español Francés*, I, XXXIII. orrialdean.

Berdin edo antzera gertatzen zaigu Arturo Campión jaunarekin ere. Haren Gramatica eskuetan hartzen badugu, honako eskaintza honekin topo egiten dugu: «A Su Alteza el Príncipe Luis Luciano Bonaparte.—Monseñor: Vuestro nombre no puede separarse de ningún estudio que tenga por objeto la lengua euskara. Cualquiera que sea la dirección que se tome, enseguida se encuentra en ella la estela luminosa de vuestro paso.—Dignaos permitir, Monseñor, que proclame una vez más esa solidaridad entre la ciencia bascófila y vuestra persona. Es lo menos que pueden hacer los que, como yo, han aprendido mucho en vuestros libros, y saben cuán de corazón amáis a la Euskal-Erria, puesta nuevamente en predicamento, merced a vuestros admirables trabajos.—Que Dios guarde largos años la preciosa vida de V. A.—Este es uno de los más fervientes votos que al cielo dirige vuestro servidor —Arturo Campión— Pamplona 30 de Junio de 1884»<sup>3</sup>.

Sabino Arana ere Van Eys-en euskal gramatika eta hiztegiak baliatu zen euskara ikasteko.

Van Eys jaun hori hil zenean, orrialde bat eskeini zion *Euzkadi* aldizkariak. Eta bertan hara zer irakurtzen dugun: «En el número anterior rendíamos homenaje a la memoria de Zubiaurre; en éste cúmpenos rendirlo a la de Van Eys. Y a fe que lo rendiremos sentido y solemne, cual corresponde al muerto ilustre que cuenta entre sus glorias la gloria de haber sido el primer maestro de euzkera de otro ilustre muerto, de D. Sabino de Arana-Goiri.—Van Eys inició a Sabino en el conocimiento de su idioma. El, con su Diccionario y su Gramática, le abrió el camino de la lengua patria. El joven Arana, aunque nacido en anteiglesia euzkeldun y aunque hijo de padres euzkeldunes, ignoraba el idioma de los suyos, como sucede con harta frecuencia entre la clase adinerada y más en las proximidades de Bilbao y de las tituladas capitales vascas... una mano allegada, pareja de la suya en el amor y hasta en la sangre, le puso a su alcance el libro de Van Eys»<sup>4</sup>.

Julio de Urquijo jaunari buruz deus esan beharrik ez dago. Mundu guztiak daki zenbat estimatzen zuen kanpotar euskalarien lana. Horregatik, noski, ausarki ematen zizkien sarrera eta tokia RIEV bere aldizkari famatuan.

Euskaltzaindiak ere, aurreko euskaltzain sortzaileek bezalaxe, kanpotar euskalariekin dugun zorra gogotik aitortu nahi du, bada. Oraikoen pertsonan lehengoak ere ohoratzen dituelarik.

Denbora berean, euskal arloan langile prestu ditugun jaunoï aukera bat eskeini nahi izan die gure herria hurbilagotik ezagut dezaten, elkarrekin eta gurekin egun batzuk iragan ditzaten. Aukera, berei eta guri, euskarari buruzko ikerketen egungo egoera elkarrekin aztertzeo, elkarren arteko lokarriak gero eta sendoago bihurtzeo, euskarari buruzko iker lanak bene-tazko jakintzari dagokion bidetik aitzinatzeo.

3. *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*, 5. orrialdean.

4. *Euzkadi* aldizkaria, (1914), 183-184. orrialdeak.

Horra zergatik eta zertarako antolatu diren Jardunaldiak. Eskerrak emateko eta urrats bat aurrera egiteko.

Programari ikusi bat ematea besterik ez dago dena bost gai nagusiren inguruan borobildua dela ohartzeko: I Euskal estudioen egungo egoera eta geroa, II Euskararen fonologiaz, III Euskararen hiztegiak, IV Euskararen morfo sintasiak, V Euskal dialektologiaz.

Azalpen nagusiak, bi ez beste guztiak, kanpotar euskalarien esku utzi dira, zeren Jardunaldi hauek berenak baitituzte, eta orduan bidezkoa zen hitz egiteko aukera batez ere berei ematea. Eta nola hizkuntza desberdinetan izango baitira lanak, itzulpen zerbitzu bat jarri da.

\* \* \*

Jardunaldiok zor baten aitortza izan nahi badute, alde batetik, bestetik, bistan da, dei bat ere badira guretzat, etxe barnekoentzat. Izan ere, kanpotarrek benetan hartu baldin badute euskara, gu-gerok —etxe barnekook, alegia— benetan har dezagula eskatzea guztiz zuzena dela dirudi. Gertakari ospetsu hau dela eta, zilegi izan bekit hontaz hitzerdi bat gehitzea.

Euskararen salbamenduko obra ez da berriketa, gero! Lan zaila da, lan handia eta eskerga da, buruz eta zentzuz lan eginez, bakean eta elkartasunean lan eginez burutu beharko den lana. Eta bestela nekez izango du atarramendu onik.

Lehenik, eta hasteko, geure tentazio nagusiak garaitu beharko ditugu: itxurakeria, ameskeria, bortizkeria. Keria guztiak aienatuz eta garaituz, lanari lot gaitzen bakean, elkartasunean. Ez da hau une txarra denok, agintariok, Unibertsitateek, euskaltzale eta euskaldun guztiok kontzientziako etsamina egin dezagun. Geure hizkuntzarentzat plan edo estrategia bat bilatu beharrean gara.

Ez dezagun, otoi, geure hizkuntza har Erakustokirako pitxi edo jostailu bat bailitzan. Egunoro erabiltzeko tresna edo erreminta beharko du izan, edo bestela alferrik ari gara. Gai ez den tresna denek botatzen dute bazterrera. Tresnaren gaitze honek lanik aski emango digu. Garbitasun guztien gaineratik tresna bati eskatzen zaio hartarakoa izatea, trebe izatea, egoki izatea. Hortik jo beharko dute gure lanek.

Plan bat edo estrategia bat beharko da buruz eta zentzuz pentsatu euskararentzat bizi bideak eta indar bideak bilatzeko.

Estrategia bat aipatzen dudanean ez dut esan nahi arazo honetan jarrera puntakoak sostengatzen dituztenek, dena zirt-zart erabakitzearen zale direnek —erradikalek, alegia—, arrazoi dutela. Beharbada ez. Ez dakit. Baina inguratzen gaituzten hizkuntzekin 'modus vivendi' bat beharko dugu euskararentzat aurkitu.

Guk, bizkaitarrok, badugu esaera edo errefracu bat zaharra, honela dioena: «Txikiak handia bentzi leidi asmoz eta jakitez». Hobe genuke

errefrau honen filosofia edo muina ikasiko bagenu. Horra hizkuntza txiki bat, bi hizkuntza handiren erdian hartua. Nola joka? Bada zer pentsa! Nola atera daiteke bizirik? Su eta gar erasoz, indarraren puruz besteok zapaltzeko ahaleginak eginez? Ez dut uste. Bide horretatik joaz, galduak ginateke. Buruz jokatzuz, zentzuz jokatzuz, errealismoz eta zangoak lurrean ditugula lan eginez, gogotik lan eginez, disziplina baten barnean lan eginez. Era hortara beharko dugu geure bidea bilatu.

Mila lan handi eta txiki ditugu egin beharrekoak, eta bakerik, elkartasunik eta gidaritzza gaberik taxuz ezingo direnak egin. Frankotiratzailen ukaldiek guti balio dute hemen.

Euskararen aldeko lan guzti hau plangintza, disziplina edo gidaritzza baten barnean eramatea behar-beharrezko da. Aspaldi esan zuen Etxeberri Sarakoak aitzindari bat behar zuela euskarak, bat eta bakarra, zeren asko-orduz ainitz aitzindari eta buruzagien izatea baino, hobe bailizate osoki bat ere ez izatea<sup>5</sup>.

Zorionean, gure herriak badu Institutio bat euskal gauzetan gidaritzza lan hori egin dezan hautatua: Euskaltzaindia. Euskal Herriko lau Diputazioek propio eta berariaz horretarako sortu eta horretarako mandatua eman zioten. Bere ahale neurrian bere egitekoa betetzen saiatu da beti, baina urterik txarretan ere. Gaur ere bere eginbide-eskubideak ez ditu salgai. Baina, jakina, berak bakarrik gauza guti egin dezake. Guztion erantzuna nahi eta behar du. Ea bada guztion artean, elkartasunean lan eginez geure mintzaira bizirik ateratzen dugun, daukan baino egoera hobe batera jasotzen dugun, osasuna eta sendotasuna bjhurtzen dizkiogun. Mueta askotako lanak aipatu beharko lirarteke hemen, baina xehetasunetan sartzeko ez da hau lekua. Nik hitzerdi hau esan nahi izan dut, Jardunaldion okasioz, euskaldunok euskarari buruz dugun erantzunkizuna gogoratzeko<sup>6</sup>.

\* \* \*

Bukatu baino lehen hitz bat oraino Sebero Altube jaunaren aipamena egiteko. Iaz egun hauetantxe eta hementxe zabaldu genuen euskaltzain agurgarriaren mendeurren edo urtea. Eta gaur ospakizun honekin ematen diogu amaiera urte horri. Urtean zehar Arrasateko Biltzarra, Velez de Mendizabal-ek arduraz prestatutako liburua eta beste ospaketa batzuk egin dira Altube jaunaren omenez. Atzerriko hizkuntzalariei hainbeste zor dien

5. *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes de Etxeberri*; París, 1907:59. orrialdean.—Latinezko itzulpenean honela dio: «Unum dixi et illum solum, quia saepe congruentius esset omnino carere, quam pluribus abundare».

6. Suzuko Tamurak esan duen bezala, arazo honen gora behera guztia ez dago politikan. Neurri handi batean nahian dago. Herriak, alegia, zinez eta benetan nahi dezala. Eta horretan geure burua errez engana dezakegu. Erreza da itxurak eta manifestapenak egitea. Baina ez da hain erreza zinetako nahia izatea eta nahi hori obretan ematea; eta hori gabe hizkuntza ez da salbatuko. Eta hori geuk bakarrik egin dezakegun gauza da, eta guk egin ezik bestek egingo ez diguna.

Altube jaunak berariazko poz eta atseginez hartuko lituzkeela Jardunaldi hauek, nik ez dut bat ere zalantzarik.

Eta besterik ez.

Kanpotik etorritako jaunok: Atseginak eta probetxuzkoak gerta dakizki-zuela gurekin iragan nahi izan dituzuen egunak!